

Bertsoak elkartu zituen bi lagun handi

Omenaldia. Pako Aristi idazleak Uztapide eta Xalbadorren hiru hamarkadetako adiskidetasun eta elkarrekiko begirunea jaso du, ikerketa sakon bat eginda

DV

Kontzentrazioa. Xalbador, kantuan begiak itxiak dituela. Ohikoa zen Urepeleko bertsolariak hala egitea bertsotan.



Bertsotik eta bertsotan hasi baino harago, sakonki «elkar maitatzeraino», heldu zen harremana izan zen Manuel Olaizola 'Uztapide' eta Fernando Aire 'Xalbador' bertsolariena. Hamarkada ezberdinetan jaio ziren, 1909 eta 1920; lurralde ezberdinetan, 142 kilometro aldentzen dituzten Zestoan eta Urepelen, jaio ziren; bakoitzak bere euskalkia zuen; eta izaera zein bertsokera ezberdinak ziren, baina Pako Aristik 'Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi' liburua ederrean jaso duen bezala, «elkar osatu zuten hogeita hamar urtez iraun zuen adiskidantza baten bitartez».

1946an egin zuten topo lehen aldiz Uztapidek eta Xalbadorrek Zarauzko saio batean eta, hiru urte beranduago Teodoro Hernandezaren zizurkildarrak Iparraldean antolatutako jaialdi batean elkarbanatu zuten oholtza estreinakoz. Ordurako biak ala biak plazetan eta bertsotan aritutakoak ziren, Aristik liburuan dioen bezala 16 urterekin hasi baitziren kantuan. Urruñako saio hartara bakoitza bere bertso-bikotearekin joan zen: Iparraldean aritu ohi ziren Mattin

eta Xalbador eta hegoaldean Uztapide eta Basarri. «Gero bikote aldaketa eta hartu emanak izango dira», kontatzen du idazleak. Adiskidetasunak Xalbador 1976an hil arte iraun zuen.

Hiru hamarkadako harreman hura oso emankorra izan zen biak ala bientzat, eta baita inguruko bertsolarien zentzuzko zein bertsolaritzaarentzat, Aristik azpimarratu bezala. «Elkar elikatu zuten bertsolari eta lagunak izan ziren eta bien artean elikatu zuten bertsolaritza». Une gozo horiez gain, txar eta mingotsetan ere elkarren alboan izan ziren, besteak beste 1967ko Bertsolari Txapelketako finala, Donostian lehiatu zena. Ekainaren 11 hura hainbatetan aipatu da ostean eta bertsolaritzaren historian mugarri izan zen. Aurkezleak buruz burukora igaroko ziren bi bertsolarien izenak aipatu zituen, Uztapide eta... Xalbador, eta bigarrena esandakoan bertan ziren 4.000 inguru ikusleetatik askok txistu egin zuten gogor. «Jendeak Lazkao Txiki espero zuen, haien faborito argia zen, eta zazpi minutuz aritu ziren txistuka». Bost urte beranduago, Donostian ere, publikoaren hase-

rra pairatu zuena Uztapide izan zen kantatu ezinik geratu zenean. «Nola edo hala eseri zen, zuri-zuri eginda, eta han egon zen saioak iraun bitartean». Gerora, bihotzekoa jasan zuela jakin zen.

Bertsokera aldetik bien ezberdintasunak nabarmentzen ditu Aristik. Uztapideri buru «errealitateari bete-betean» abesten zion bertsolaria zela dio, «garai hartan

behar zen bertsolaririk onena». Estilo aldetik «diesela» zen, baina berotzean, «afaritan-eta, bulldozer bat zen, bertsotan gelditu ezinik». Mikrofonoaren aurrean «oso segurua, erregularra» izan ohi zen eta nabaria zen tradizioa ezagutzen zuela, bertsopaperetik jaso. «Esateko moduak oso ondo menperatzen zituen». Eta ezberdintasun agerikoena: «Jen-

deari zuzenean begietara begiratzeko zion».

Izan ere, Xalbadorrek «begiak itxita» abesten zuen, «ikus nahi ez balu bezala aurrean daukana, beste zerbait amestuko balu bezala». Argazki ugari dira hala jasotzen dutenak, albistearekin batera doana esaterako. «Bere abizenak dioen bezala, [Aire], airekoa zen, filosofoa, poeta, abstraktua goa». Hori bai, mezu sendoak zizuten ere. «Oso pentsamendu politikoa zeukan, Euskal Herriaren batasunaren ez zeuen zalantza izpirik egiten eta bere bertsoetan argi adierazten zuten Euskal Herriaren etsaiak nor ziren, Espainia eta Frantzia».

Elkar miresten zuten

Elkarrekiko zuten «miresmen, txera, begirune eta maitasun» horren adibideak ugariak dira eta liburuan jaso ditu batzuk Aristik. Esaterako, 1974an Xalbadorrek bertso-sorta bat argitaratu zuen Zeruko Argia aldizkarian eta, ostean, 'Odolaren mintzoa' liburuan jaso zuen. «Maitasuna dago bertsotan, maitasun handi batekin idatziak daude eta Xalbadorrek onartzen du Uztapideren maila-



1967. Uztapide eta Xalbador, Anoeta frontoian lehiatu zen finalean. Liburuaren azaleko irudia da.

Erregularra. Uztapide, 1967ko txapelketako garaile izan zen. ARGAZKIAK MARIN



DATUAK

► **16 urte.** Adin berarekin hasi ziren kantuan. 1946a arte ez ziren ezagutu, baina 30 urteko adiskidetasuna izan zen.

► **Ispilu.** Bertsolariak jarraituz, Zestoa eta Urepele senidetu egin dira. Liburua da lehen emaitza, baina ez azkena.

► **Bikote.** Erreferentziako bertsolari, maiz aritu ziren elkarrekin, plazaz plaza, baita Mattin eta Basarrirekin ere.

ko akta argitaratu zuen Interneten eta garbi ikusten da puntuazioaz Txirritak irabazi zuela, legez eta puntuazioz». Aristik, noski, ez zuen zalantzan jarri Uztapidek beti defendatu zuena, hari epaimahaiko kide batek esan ziola. «Endredo hark esandako gezurak sortu zuen. Izena ez dugu jarri, baina irakurle azkarrak aterako du iradokia dagoelako».

Herriak 'senide'

Euskal Herriak eman dituen bi bertsolaririk handienetako hauen ereduari jarraituz, orain bi herriak, Zestoa eta Urepele, senide-

tu egin dira. Hain zuzen, aurkeztutako liburua da harreman honen lehen emaitza, baina Xole Aire Urepeleko alkateak zein Mikel Arregi Zestoako alkateak adierazi bezala ez da azkena izango. «Senidetzeak bide luzea izan dezala». Besteak beste, ekainaren 15ean Urepele eguna egingo da Zestoa eta 19an liburuaren aurkezpene egingo da Amurizarekin. Udazkenean Urepelen antzeko zerbait egitea aurreikusten dute eta Airek esan bezala liburua eta Uztapideren figura eskolara eraman nahi dute haurrekin lantzeko. Eta aurrera begira Xalbadorren heriotzaren 50. urteurrena gorritz markatutako data da.

Liburuaren ernamuina, proiektu berezienekin gertatu ohi bezala, elkarriketa informal bat izan zen, Aristik azaldu zuen bezala. «Kafea hartzen ari nintzela Arregik esan zidan ea zer egin zitekeen bertsolariei buruz, zerbait iraunkorra nahi zuela eta nik esan nion zer iraunkorrako liburuak baino». Emaitzarekin oso pozik azaldu ziren alkateak, bi bertsolarien bizitzaz gain besteak beste «garai hartako bertsolaritza eta bizikera» ederki islatzen duelako.

«Uztapidek gizartea deszifratzeko ahalmen berezia zuen, onena zen»

Aristik Zestoako «erraldoiak» belaunaldi ezberdinekin, 1936tik 70eko hamarkadara, kantatzeko gaitasuna goraiatzeko du

DV

DONOSTIA. Bizi garen gizarte turbo honetan Manuel Olaizola 'Uztapide'-ren figura ahanzturan erori denaren pena du Pako Aristi idazleak. 'Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi' liburuarekin hori konpondu nahi izan du, bere uste-tan «erraldoi» bat zelako. Basarrirekin eta Xalbadorrekin bikote paregabea osatu zuen eta plazan maiz aritu zen haiekin, kopurua zehaztea zaila bada ere. «Uztapidek esaten du une batean 'udara 18 egun segidan izan nituen 18 saio, 18 gautan 18 leku ezberdinean lo eginga nago', beraz ez beti baino pentsatzekoa da bertso-saio askotan izango zirela elkarrekin». Maila horren adierazle da taula lau bertsolari belaunaldirekin elkarbanatu izana.

Izan ere, 1925ean hasi zen bertsotan, Txirritaren tankerako bertsolariekin. «Pendenzieroagoak ziren, elkarri zirikatzen zioten eta kristonak esan». Gerraosteko egoera prekarioan, Aristik azpimarratu bezala, Basarrik errespetuz kantatzearen aldeko apustua egin zuen, «elkarri erdeinatu gabe» eta bertsokera jaso horretan Uztapidek eboluzionatzen jakin zuen. Hori gutxi ez, jarraian heldu ziren Lasarte edo Lazkao Txikirekin ere

kantatzen jakin zuen plazetan eta frankismo bukaerako gazte politizatuagoekin, Gorrotxategi, Azpilaga edo Lopategirekin, ere. «Ez Dok Amairuren eta pizkunde kulturalaren aroa izan, lehen Ikastolak... Hauekin kantatzen ere jakin zuen eta bertso radikalen bat ere badu, liburuan jaso den bezala. Abilezia edo doain hori izan zuen».

Guztiaren gainetik, «gizartea deszifratzeko eta eragina izango zuten gauzak esateko ahalmen berezia» nabarmentzen du Aristik. «Aparteko azkartasun mentala, zorrozatasuna, bere ingurua ezagutzeko gaitasuna zuen». Hori islatzen saiatu dira liburuan txertatutako bertsoen antologian, eta garai hartako bertsolaria izanagatik, egungo ikuspegitik ulertzeko moduko bertsoak direla aurreratu du.

Bertsokide eta maisu

Ibilbide luze horretan gazteekin izandako harremana konstante bat izan zen. «Transmisio lan ikaragarria egin zuen, bertsolari asko onartzen diote hori, irakasle eta maisu izan zela». Uztapideren azken argazkia, albistearekin batera doana, 1983koa da eta harekin daude, besteak beste Xabier Euzkitze, Arantzazu Loidi, Sarasua anaiak edo Felix Inurrategi. Bertsosazale Elkarteak Gipuzkoako Txapelketaren harira berreskuratutako du lehen bertso eskolaren 50. urteurrena ospatzeko eta iruditegia herritzeko baliatu du.

Aristik oso ideia ontzat du, era honetara Zestoako bertsolaria ahanzturatik berreskura daitekeelakoan.



Erreferente. Uztapide, eskolarteko gazteekin Oiartzunen, 1983an, hil aurretik.